

Mugikortasun Iraunkorraren Astean bizikleta izan zen ardatz

Neska mutil ugari elkartu ziren ostiral arratsaldean Andatza Plazan

Udaleko Ingurumen sailak aurtentzako mugikortasunaren protagonismoa eman nahi izan dio Mugikortasunaren Astearen barruan eta ostiral arratsaldean txirringak izan ziren nagusi Andatza plazan egin zen festan. Ingurugiroa zaintzeko ibilgailurik egokiena eta gutxien kutsatzen duena da zalantzarik gabe eta bere erabilera bultzatzeko herrian zehar joan etorria egin zuten haurrek eta ondoren bizikleta gainean duten trebetasuna erakusteko aukera izan zuten. Gainera bigarren eskuko bizikletak jarri ziren salgai eta herriko txirringariek hauek konpontzeko aholkuak eman zituzten.

Arratsaldeko 4etan atera ziren herrian zehar itzuli bat emateko bi talde: 20 bat neska mutil txikiak Eusko tren geltoki eta Atsotak ingurutik ibilbide motza egin zuten eta koskorragoak, beste 25 bat lagun, Azkorte bideraino joan ziren

Plazaola trenbidearen garai bateko ibilbidean zehar eta ibai ertzetik Andatzara itzuli.

Ondoren euren trebetasuna erakutsi ahal izan zuten guztiek Andatza Plazan egin ziren gimkhana jokoetan. Ibilbide batean zenbait oztopo gainditu behar izan zituzten.

Bestalde, iazko erantzun onaren ondoren aurtentzako bigarren eskuko bizikleten azoka txikia antolatu du Lasarte-Oriako Udalak. 25 bizikleta inguru, maillotak, kaskoak eta txirringaritzaren inguruko beste hainbat osagarri jarri ziren salgai Andatza plazan. Bertan jarrita zen konponketa tailerrak ere arrakasta handia izan zuen. Hainbat txirringa eta gurpil konpondu zituzten Buruntz azpi Txirringulari Eskolako partaideek, gainera konponketei buruz zein bizikletaren erabilera eta zainketa-ri buruz oinarritzko azalpenak emanaz. •



Bizikletan trebetasuna erakusteko ibilbidea, saltoak, konponketa eta salmentak, denetarik egon zen ostiralean Andatzan.

ASTEKO ALBISTEAK | 3

**Atsotakarren
konpostategia
jartzeko asmoa
berretsi du
Usurbilgo
Udalak**



Lasarte-Oria eta Orioko herrien esker ona jaso zuen atzo Patxi Etxeberriak /4-5



San Pedro Parrokiaren 440. urteurrenaren berri eman digu Xabier Andonegik /6

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Ostadar Kirol Fundazioak denboraldi berriari ekin dio

■ Ostiralean 2009/10 denboraldia eta babesle berria aurkeztu zuten Ostadarreko egoitzan

Ostadar Kirol Fundazioko ordezkariak 2009/10 denboraldiko kirol egitasmoa eta babesle berria, Plagamanía.com, aurkeztu zituzten aurreko ostiralean elkarteko egoitzan. Iazko atalak mantentzen dituzten arren, denboraldiak berrikuntzak ditu.

Kirol Fundazioko ordezkariak federatuarekin ekin zioten aurkezpenari.

Fitxa federatu gehien dituen atalak futbol federatua da, aurten 10 futbol talde martxan jarri ditu elkarte lasarteoriatarra, iaz baino 2 talde gehiago, lehen jubenila eta lehen infantil. Guztira 200 kirolari inguru eta 20 laguntzaile eta entrena-tzaile. Eta Futbol Eskolak ere aurten urriaren 7an ekingo dio denboraldi berriari 8 eta 10 urte bitarteko 80 haurrekin.

Bolatokian ere hasi dira bolo hotsak entzuten, izan ere, aurreko asteburuan Santi Martín eta Martín Egaña memorialeko ospatu zuten.

Beste urte batez, bolari talde honek eskualdeko tirada federatuetan eta bestelako txapelketetan parte hartuko dute. Aurkezpenean Ostadarreko ordezkariak herriarrik gonbidatu zituzten bolatikora gerturatu daitezkeen kirol modalitate honetaz gozatzeko.

Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoiazen azken detailak ere zehazten ari dira Ostadarren, urriaren 25ean dena ondo atera dadin.

"Aurten inoiz baino zailtasun gehiagorekin, herria hankaz gora dago eta. Herrian burutzen ari diren lanak direla eta, ibilbidea zerbait aldatuko da. Herriko txikiak ere festa honetan parte hartzeko aukera izango dute aurten ere", azaldu zuten ordezkariak.

Bestalde, Tenis Eskolak irailan atek zabaldu zituela adie-

razi zuten, "beraz, tenisaren sekretuak bereganatu nahi duenak udal kirol instalazioetatik pasa daitezke."

Honetaz gain, areto-futbol txapelketari esker elkarteak sortu zela gogora arazi zuten. Egun 400 jokalarik inguru biltzen dira asteburuan futboleko jokatzeko. Aurtengo edizioan 22 taldek eman dute izena eta hurrengo asteburuan denboraldi berriari hasiera emango diotela aurreratu zuten Ostadarreko ordezkariak.

XVI. Pala Txapelketa antolatuko dute ere Ostadarrekoek eta urtero bezala otsailean hasiko dela aipatu zuten.

Era berean, Ostadarreko ordezkariak gogoratu dute abenduaren mendizaleek eta zikloturistek federatzeko aukera izango dutela.

Proiektu altruista

Kirol proiektu hau modu altruista batean burutzen da 20 lasarteoriatarrei esker.

Lan talde honek helburu bakarra du, adin eta sexu desberdinetako herriarrik kirolak



Ostadarreko ordezkariak Erregional Gorengoan taldeko babesle berria aurkeztu zuten ostiralean. Arg.: Itziar Carrasco

eskaintzen dituen onuretzat gozatu dezaten.

Ostadarreko arduradunek atal desberdinetan parte hartuko duten 2500 kirolari inguru espero dituzte aurtengo denboraldian.

Diru sarrerak

Ostadarrek eskaintzen duen kirol egitasmo hau aurrera atera dadin bolondresen lanaz gain, dirua ere behar du.

Horretarako elkarte-kideek ekimen desberdinak burutzen

dituzte urtean zehar (txirritularitzako porra, errifak, bazkide kanpaina, babesleak...).

Aurten Ostadarreko gorengo taldeak babesle berria du, Plagamanía.com. Izurriteetako tratamenduetan hamabost urtetako esperientzia duen enpresa honek lantegia Urnietan duen arren, kapitala lasarteoriatarra du. "Ostadar Kirol Fundazioren bitartez Lasarte-Oriako kirola sustatzea eta laguntzea erabaki dugu. Erabaki honekin herriko enpresek horrelako kirol egitasmoetan babesa eman dezaten nahiko genuke," adierazi zuten.

Honetaz guztiaz gain, Ostadarrek aurten lehen aldiz gabonetako loteria kaleratuko du.

Partzipazioak aurki Ostadarreko egoitzan eskuragarri izango dituzte 2,5 euroren truke (0,50 euro elkartearentzat izango da). "Lehen sariko zenbakia aukeratu dugu, 48.850", diote elkarteko ordezkariak parrez. •



Porrako sarituak.- Ostiralean ere, *Vuelto*ko Porraren sariak banatu ziren Ilargi tabernan, Urdaiazpikoak, dirusaria eta puntu gehien eskuratutako taberna izateagatik Ilargik, Urgul jatetxean bi pertsonentzako afaria. Era berean, Ostadarreko Porra nagusiko irabazleari, Zabalo txartelari ere 1.600 eurotako saria eman zitzaion. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Konpostagunea aurrera

Udalak alegazioa jarri arren, Usurbilgo Udalak behin betikoz onartu du

TXINTXARRI

Usurbilgo Udalak, ekainaren 30ean, hasieraz onartu zuen Atsobakarreko eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa.

Aldaketaren helburua, aurrekoan bezala, Asteasuango kirol-ekipamendurako lur-zati baten erabilera aldatu eta hondakin organikoen konposta egiteko instalazio bat jartzea da.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak alegazio bat egin zion Usurbilgo Udalak planteatutako aldaketa berri horri.

Kokapena

Eztabaidagai den lur zatia, Atsobakar auzoan Froilan Elespe parke botanikoaren ondoan dagoen guner berdea da.

Indarren dagoen planak erabilera tertziariorako edo *Kirol Parke* izan dadin xedatzen du, eta bertan ez da inolako erakuntzarik baimentzen, kirolean aritzeko direnak izan ezik.

Aurrekariak

Aurrekariak errepasatuz, Usurbilgo Udalak Plan Partzialaren aldaketa bat onartu zuen apirillean, konposta egiteko ekipamendu publikoa jartzeko. Lasarte-Oriako Udalak alegazio idatzia egin zion honi. Ondorioz, aldaketa bertan behera uztea erabaki zuen Usurbilgo Udalak.



Froilan Elespe parke botanikoaren ondoan dagoen guner berdea da Usurbil eta Lasarte-Oriako Udalen eztabaidagaia.

Behin betikoz onartzea

Honela, ostirala baino lehen, Lasarte-Oriako Udalak aipaturiko aldaketan atzera egin eta Bateragarritasun Plan bat idazteko prozesua aurrera eramatea eskatzen zion Usurbilgo Udalarari.

Baina, ostiraleko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenaren arabera, irailaren 11an egindako Udaltzarrean Usurbilgo Udalak

hasierako aldaketari egindako bi alegazioak aintzat ez hartzea eta aldaketa behin betikoz onartzea erabaki zuen konpostagune ekipamendu publikoa ezartzeko.

Errekurtsoa jartzeko

Erabaki honen aurka, GAO n argitaratu eta hilabeteko epean, berraztertze hautazko errekurtsioa aurkeztu ahalik dute partikularrek

Usurbilgo Udalean.

Beste era, administrazioarekiko auzi errekurtsioa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan aurkeztea da eta horretarako bi hilabeteko epea dago.

Baina, GAO n azpimarratzen den bezala, administrazioarekiko errekurtsioa ezingo da jarri espreski berraztertzeo ebatzi edo ezetsi arte. •

BIYAK BAT ELKARTEA

Asturias ezagutzeko aukera paregabea

Oraingo honetan, Asturias ezagutzeko erabaki du Biyak Bat erretiratuen elkarteak, urriaren 19tik 25era.

Bidaian zehar Ribadesella, Villaviciosa, Covadonga, Cangas de Onís, Cuenca del Nalón, Luarda, Cudillero eta Gijón bisitatuko dira.

7 egun eta 6 gau 284 euroren truke. Prezioan hiru izarretako hotelean estantzia pentsio osoan, eta otorduak edaria barne dago.

Informazio gehiago nahi izanez gero bulegotik pasatzea besterik ez duzue. Bidaia aurrera aterata ahal izateko, 45 pertsonetako taldea osatu beharra dago. •

LOIDI-BARREN

Beko errota kalea itxia gaurtik aurrera

Loidi-Barreneko urbanizazio lanen baitan, gaur, irailak 28, ibilgailu-zirkulaziorako itxiko da Beko Errota kalea, 1 eta 9 zenbakien artean eta urriaren 4an, hurrengo astelehenean, irekiko da berriro ere.

Udalak barkamena eskatu nahi du lan hauek sortu ditzaizkien eragozpenengatik, eta arren eskatzen du kale horretan ibilgailurik aparkatuta ez egotea. Era berean, moztuko den zatian garajeak dituztenek, ezin izango dute aste osoan horietatik irten edo horietara sartu. •



Rockandrolla Kultur Etxean. Rock&Roll doinuak izan ziren nagusi ostiralean Down Town hirukoteak kultur Etxeko lehen solairuko kafetegiko aretoan eman zuen kontzertuan. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera hainbat abesti ezagun eta beraiek sortutako beste batzuek jo zituzten, bateria, organo eta armonikaren laguntzaz. Abeslariaren ahots indartsuak tonu berezia eman zion hirukoteak eskainitako emanaldiari. •

Gazteideiak martxan

Gazterriako sailak *Gazteideiak* lehiaketako ideia sari-tuetako bat martxan jarri du dagoeneko.

Lehiaketa honen bidez, Lasarte-Oriako Udalak gazteen proposamenak sustatu eta aurrera eraman nahi ditu. Era honetara, talde honen sormena sustatu eta, era berean, gazteen parte hartzea eta konprometua lortu nahi izan da.

Teknologia berriak

Javier Corbachoren proposa-

mena Lasarte-Oriako udala eta gazteen arteko interakzioa teknologia berrien bidez egitea izan zen.

Horretarako erabiliko diren euskarrietako batzuk *Facebook* eta *Tuenti* harreman sareak dira. Hauetan *Lasarte-Oria Gaztea* taldea sortu da eta talde honetan izena ematen duten gazte guztiek *Gazterria* sailak antolatzen dituen kontzertu, lehiaketa, ikastaro eta edonolako jardueren berri izango dute. •



Bronx-eko Pako arrantzalea

Arrain usaina hartu zuen Kultur Etxeak Patxi Etxeberriaren omenaldian Esker on zabala jasoa zuen bertsolariak atzo Ane Labakak bertso hungikargarria eskaini zion inaxi Etxeberriari



Bertso Eskolak makila oparitu zion Patxi Etxeberriari. Emetze libur eta bere garalako bertsoak ere izan zituen omenaldian.

Xabier Lasarenzatz txalo bat eskatu zuten, txukun jasoa duelako liburuan Patxi Etxeberriaren bizitza eta ibilbidea.

leak txapelak oparitu zion, urtean ikaslearen alde saina eskian artu zela esker-tz.

Orondoren Lasarte Oriako Udala Ana Urchuegna igor ziren oholizatza.

Herriko artista batek egindako erretaratu oparitu zioten eta Kikar dok Patxi Etxeberria herrian "eredu izateagatik" zortitandu zuten eta bertsoak ere eskatu zituzten.

Egaitza arkezleak bertsoetan neman, ihaki Iturain Euskara Batzordeko buruak dituelako politikaz zuten zuzeneko hitza.

Patxi Etxeberriaren bizitza eta ibilbidea bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.

Era berean, omenaldia antolatzaileak bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.

Era berean, omenaldia antolatzaileak bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.

Era berean, omenaldia antolatzaileak bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.

Era berean, omenaldia antolatzaileak bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.

Era berean, omenaldia antolatzaileak bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.

Era berean, omenaldia antolatzaileak bertsoak ere eskatu zituzten, oso txukun jasoa duelako hitza eta ibilbidea.



Eltra arin surretik agurtu dantzan zuten Etxeberriak.



Lera, arnain, txopala, liburak eta hainbat bertso jasoz zuten bilobaek opari.

gabe eta inor zapaldu gabe izan direla esker-tz.

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Arnain jan behariko duze, orido- rrek elearrin...

Patxi Etxeberria Bertsolaria 'Zoragarria izan da'

Liburua zer moduz, polita geratu al da zure intziz?

Liburuen aurkezpenaren esan zutenen ahal duzun bitartean jarraituko duzula bertsoaren...

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Behin omenaldia jasota, zer gogo omenaldia duzu erretiratuak?

Advertisement for MAITE ESTETIKAKO ARTOA. Includes text: 'Foto deplaziora arniz putzatuarekin', 'Era gurtitako deplaziorak', 'Aurpegiko tratamendurik', 'Gorputzeko tratamenduak'. Contact: Ustintz Kalea, z/g • Tel.: 943.370845 • Lasarte-Oria

Advertisement for ADURIZ DE LASARTE S.A. Includes text: 'Loidi kalea 3 • Losarte-Oria • Tel.: 943.361278'. Features an image of a cow.

Advertisement for ERREKATXO JATEIXEA. Includes text: 'Eguneko menua', 'Ostiraleko menua 8 euro', 'Asteburuko menua enkarguz', 'JAUNARIZETA BATAIOETIAKO MENU BEREZIAK'. Contact: Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943.65557 • Lasarte-Oria

"Ez dut eliza hiltzen utzi nahi"

San Pedro Parrokiaren 440.urteurrena ospatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte

Xabier Andonegik, duela 2 urte Lasarte-Oriako apaiza bihurtu zen. Idei berriztatzaileak ekarri ditu herrira, denak helburu zehatz batekin, eliza biziberritzea. Hainbat ekintza antolatzen ditu, normalean, elizara hurbiltzen ez den jendea gertura dadin saiatzeko. Aurten, elizaren 440. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu, beti ere, herriko istorioa eta eliza berarena gizartearen ezagutzera emateko.

ITXASO MORENO

Lasarte-Oriako eliza, parrokia bezala duela 440 urte jaio zen, baina aurrentik ba al du istoriorik?

Lasarte-Oria bazuen eliza, baina Donostiako Antiguoko dominikuek ziren lurralde honen administrariak. Zegoen ingurunean bizi zirenek bere ondasunetatik hamarrekoa eman beharra zuten eliza mantentzeko. Gainera, bataioak, ezkontzak, elizkizunak egitera ere Donostiara joan beharra zeukatzen, horrek ekartzen zituen eragozpenekin. Momentu horretan, lasarteoriarrek beraien eliza parrokia bihurtzea eskatu zuten, baina dominikuei ez zitzaizien interesatzen, bertan lortzen zituzten hamarrekoko galduko zituzte-lakoan. Hemen jende gutxi bizi zen, 200 pertsona inguru, baina hala ere, dominikuek ez zituzten diru sarrera horiek galdu nahi. Garai horretan, Lasarte-Oria Iruñako erreinuaren barrutian zegoen, beraz, bertako gotzaina zen inguruko eliza eta parrokiak antolatzen zituenak. Hemengo biztanleak, gotzainarekin kontaktuan jarri ziren eta lortu egin zuten parrokia bezala izendatzea herriko eliza. Hala ere, ezin izan zituzten parrokia batek dituen ondasun, ondareak lortu, dominiku fraile horien eraginez. Hamarrekoko Donostiako dominikuek bereganatzen jarraitu zuten, eta parrokia hau, bertako biztanleek borondatez emandakoarekin aurre egin behar izan zuten. Hau izanik, Lasarte-Oriako parrokiak duen bitxikeria. Eta horrela ulertu daiteke, hainbeste urte dituen eliz honek zeinen itsua eta pobrea den.

Zer dela eta parrokiaren 440. urteurrena ospatu, zerbait berezia al du urte horrek?

Ez du motibazio berezirik. Ni hemen duela 2 urte hasi nintzen parroko moduan, harez geroztik nabil parrokia zerbait txukuntzen. Betidanik esan ohi izan da, elizaren pareta frontoia zirudiela, inolako atondurarik ez zituelako. Orain irudi batzuk jarri ditugu,

gurutze bat ere goitik behera doana... beraz, berritutako guztia ezagutzera emateko, eta era berean elizaren istorioa ezagutzera emateko erabaki nuen ospakizun hau martxan jartzea.

Ze ekintza mota jarri dituzte martxan helburu hau lortzeko?

Hitzaldi bat antolatu genuen, historialaria den Agirresorondoren eskutik. Bertan, Lasarte zer den, bere antolamendua gizarte eta eliza mailan azaldu zituen. Don Manuel Lekuonaren idazkiak ere eman zituen ezagutzera. Parrokia eguna ere antolatu genuen, San Pedro jaiak ospatu baino aurreko igandean. Meza berezia antolatu genuen, koro gregorianista batek lehengo soinuak parrokiara ekarri zituelarik. Egun horretan ere, herri bazkaria antolatu genuen, eta bertan 100 pertsona bildu ginen Goiegin ospatutako bazkarian. Kontzertu ezberdinak ere eskaini ditugu parrokiaren, horrela mezetara etortzen den jendeaz gain,



Xabier Andonegik Lasarte-Oriako parrokia gizartearen errotzera du helburu.

beste herritar batzuk ere hurbiltzeko asmoarekin.

Urteurren hau ospatzeko azken ekitaldia, Palestinara antolatutako bidaiia izango da.

Zergatik erabaki zenuen bidaiia Palestinara egitea?

Lurralde Santua da eta kristau erlijioaren barruan leku

garrantzitsua dugu. Antzinatik hiru leku izan ditugu erromesaldi; Erroma, Santiago de Compostela eta Palestina bera. Aurreko urtean Erroman egon ginen, eta aurten Palestinara proposatu genuen. Bidaii aproposak dira eliztarra den jendearentzat. Izan ere, elizaren egunero ebanjelioa irakurtzen da eta entzunaren poderioz lekuen izenak eta pasarteak ikasten dituzu, baina lekua imajinatu egin behar duzu. Bidaii honi esker, jendeak sakontasuna lortuko du, entzunak irudiekin lotuko dituelako, gaurko egoeran dauden moduan ezagutu arren. Honetaz gainera, bidaii honi esker, leku bateko jendea, kasu honetan lasarteoriarrek elkartzan dituzulako eta beraien harremana sendotu egiten delako.

Zenbat elkartzeko zarete? Eta bertan zer ikusiko duzue?

50 pertsona izango gara orotara. Jende gehiagok parte hartu nahi izan duen arren, autobus bakar bat ziurtatu behar genuen, bertan gero zatituta ez ibiltzeko. Gainera, herriko semea den Perico Camarero Nuñez eta Lurralde Santuan fraile eta gidari dena, izango dugu azterkari. Orotara 8 egun egongo gara Palestinan, lau iparraldean, Israelen, eta beste 4 hegoaldean, Jerusalem. Programa oso zabala dugu; Jesusen jaiolekua Beleen, bizilekua Nazareten,

heriotza eta Kalbarioa Jerusalem. Halaber, judutarren eta palestinoen kultura antzematen saiatuko gara. Kibutzak ezagutuko ditugu eta bertan ibili ere. Kibutzak judutar gazteak 1905. urtean sortu zuten bizimodu berria izan zen. Elkarrekin bizitzeko, lurra lantzeko... antolamendu sozialistan antolatu ziren, kooperatiba baten antzera. Jerico ere ezagutuko dugu, munduan dagoen, arkeologikoki, herririk zaharrena. Itsasotik 300 metrotara dago eta bertan, bero izugarria egiten du.

Basamortuan ere ibiltzekoak gara, Gazara inguratuz, baina bertan sartu gabe.

Ekintza ugari, baina zein da zure funtsa nagusia?

Ideia berri bat plazaratzea. Hau da, parrokiak, kultur etxe baten antzera funtzionatu behar lukeela. Gure egin beharra beraz, ekintza ugari antolatzea da, gero jendea etortzen den ala ez beste gauza bat da, baina gure lana horretan dihardu behar du. Pena izugarria emango lidake parrokia bat hiltzen ikustea ezer egin ez delako, gauzak antolatu behar ditugu, baina gure sailekoak noski. Normalean elizara etortzen ez den jendea bideratutako tailerrak antolatu behar ditugu, hori dut erronka moduan. San Pedro parrokia bizi-berritzen eta hil ez dadin saiatuko naiz. •



Parrokiaren irudi berria ezarri berri den gurutzeari ezker

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABAL argazki-lari zarautzarraren, *Itsasoari begira* argazkia sorta ikusgai irailaren 30era arte.

JALGI KAFE-ANTZOKIAN **egun osoan zehar.**



Erakusketa

OSCAR POZOSEN argazkiak ikusgai urriaren 1etik aurrera. JALGI KAFE-ANTZOKIAN **egun osoan zehar.**

Larunbata, 3

Djen emanaldia

Reggae estiloko saioa DJ SERGIO SOMA eta harekin datorren abeslariak eskainiko dutena. Sarrera doan. NAIBAN TABERNAN, **23:00etan.**

Osteguna, 15

Hitzaldia

GURASOAK SEPARATZEN DIRENEAN hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, *Nola hezi gure sema-alabak* hitzaldi zikloaren barruan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan.**



Ostirala, 23

Kontzertua

XABI SAN SEBASTIAN abeslariak *Ospela* diskoa aurkeztuko du. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan, EUSKARAZ.**



Eta Karmele? euskarazko antzerkia Jalgin

Ekainean atzeratutako antzezlan eskainiko dute Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi zarautzarrek ostiralean. *Eta Karmele?* antzezlan Samara Veltek idatzia da.

OSTIRALEAN, 2AN, 23:00ETAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
EUSKARAZ

Zabaletako Udazken festa

Ostirala 2

19:00etan, Haur jokoak

Ostean, proiektzioa

20:30etan, Sardina jana

Festa auzoko trikitilariak alaitua izango da



ZABALETA AUZOAN
ANTONIO BLAS PLAZA

Liburutegiko ordutegia

Astehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitzetez, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan, Txakunen antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten Cdak irailaren 28tik aurrera eskuratu ahal izango dira Amaran ludotekan. Orduetia: 17:00-20:00etara.

Oinatzten irteera bertan behera geratu da

Oinatz taldeko arduradunek jakinarazi digutenez, Donibane Garazira urriaren 4rako antolatuta zuen irteera ez da egingo. Data berria ezartzerakoan,

koan, komunikabideen bidez emango dute honen berri. Barkatu eragozpenak.

Oriatarren bazkaria

Urtero legez Ori auzoko bizilagun eta lagunkideek bazkaria ospatuko dute urriaren 18an, Txitxardin Beltza jatetxean.

Aurten, urte askotan, Brunet fabrikako eta Ori auzoko praktikante izandako Jose Javier San Sebastian omenduko dute. Bazkarirako txartelak eskuratzeko telefono zenbaki hauetara deitu behar da 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol) urriaren 10a baino lehen.

Oztabide elkarteko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela.

19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetza da.

Loteriako partaidetzak Txema tabernan, Zumaburu auzoko Andapa kalean eta Oztaran enparantzan dagoen Coviran supermerkatuan erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukela elakrteak. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonotara deitu.

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea.

Entsegu Zumaburuko

eliza azpiko lokalean egiten da, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzetez!

Xumela korua martxan

Xumela koruaren lehen entsaioa urriaren 5ean izango da, beti bezala Landaberri BHI egoitzan eta arratsaldeko 19:30ean.

Interesa duzenok, bertara azaltzea besterik ez duzue. Animatu eta etorri kantatzera!

Eskularen ikastaroko lehen saioa

Txakunen antolatutako eskularen ikastaroko lehenengo saioa urriaren 3an izango da, Erribera kaleko 1. zk. (liburutegi zaharrean), goizeko 10:30ean. Interesatek bertara azaldu edo Txakunen izena eman (Geltoki kalea 4, 943 371448). Eskularen gogoko badituzu, animatu eta etorri, ez zaizu damutuko!

Neguko ordutegia

Herriko kirol guneen neguko ordutegia dago dagoeneko.

Kiroldegia, astehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:30era egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeeetan, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00etatik 12:30etara eta 14:00etatik 21:30etara, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo kirol gunea, astehenetik ostiralera, 15:00etatik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandean 9:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com



Amaieran, Nathaliek eta Eliasek oroigarriak jaso zituzten Ana Urchuegia alkatea eta Jone Altuna zinegotziaren eskutik.



Xabier Iglesiasi *Zorionak zuri jo zion Zero Settek*, bere urtebetetzea baitzen.

Aurtengo edizioa ere arrakastatsua

Zero Settek antolatuta, Seigarren Akordeoi Jaialdia ospatu zen larunbatean kulturetxean

TXINTXARRI

Jende asko hurbildu zen larunbatean Manuel Lekuona Kulturetxean ospatu zen Akordeoi Jaialdira. Aurtengo seigarren edizioa izan da bi gonbidatu izan zituen; alde batetik Xabier Iglesias lasarteoriatarra eta bestetik Nathalie Boucheix.

Maider Seguroiak aurkeztu zuen emanaldiari hasiera Xabier Iglesiasek eman zion. Bi pieza eskaini zituen Xabierrek, Iñigo Peña konpositorearen *Impaciencia* eta J. Mecer-en *Autumn Leaves*. Emanaldi bikaina burutu zuen Xabierrek eta merezitako txalo zaparrada jaso zuen entzuleengandik.

Jarraian Nathalie Boucheix-ek 17 pieza eskaini zituen bere taldearekin batera. Ez da lehenengo aldia Nathaliek Lasarte-Oriako Akordeoi Jaialdian jotzen duela, orain bi urte ere egon baitzen, eta izandako arrakastaren ondoren, berriro gonbidatzea erabaki dute. Oraingoan Nathalie ez da bakarri etorri, berak zuzentzen duen Musika eta Akordeoiko Zentruko hiru musikariek etorri zen.

Oso abesti ezagunak jo zituzten Nathaliek eta bere

taldekideek, batzuk oso eritimo bizikoak. Perles de Cristal piezan, ikusleei txaloekin abestia jarraitu zezaten eskatu zien, eta amaieran merezitako txaloaldia jaso zuen. Abesti ezagunak jo zituen Nathaliek, esate baterako *La Parisienne à Seville*, *Besame Mucho*, *La Cucaracha*... Bere saioaren amaieran oso gustura egon zela adierazi zuen, esker oneko entzuleak zeudela eta, beste pieza bat jo zuen. Amaieran txaloaldi luzea jaso zuen.

Hamar minutuko atsedenaldia egin ondoren, Elias Goikouria zuzentzen duen herriko Zero Sette akordeoi orkestraren txanda izan zen. Hauek bi pieza jo zituzten,

Zero Sette orkestrarekin batera, Xabier Iglesias herritarra eta Nathalie Boucheix aritu ziren

Gioacchino Rossiniren *La Gazza Ladra* eta lehenengo aldiz, Iñaki Urkizuren *Dantzaldia*, poutpourri euskaldun. Iñaki Urkizu bera entzuleen artean zegoen eta jaialdiaren amaieran, interpretazioa asko gustatu zitzaiola esan zuen.

Sorpresa

Aurten ere entzuleei sorpresa bat eman nahi zieten antolatzailleek eta Zero Sette orkestrak, Nathaliekin batera Edith Piafen abesti bat jo zuten Eliasen gidaritzapean.

Jaialdiaren amaieran oroigarri bana jaso zuten Nathalie Boudheix-ek eta Elias Goikouriak Lasarte-Oriako udaleko agintarien eskutik, Ana Urchuegia eta Jone Altuna. Ondoren Zero Setteko lehendakaria den Jose Antonio Reyk oroigarri bat eman zion Xabier Iglesias gazteari.

Zero Setteko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete Lasarte-Oriako Udalarai eskainitako laguntzagatik eta Semblante Andaluz elkarteari afaria bertan egiteko aukera izateagatik.

Jadanik hasiak dira hurrengo edizioa prestatzen. Ziur egon aurtengo kalitate berbera edo handiagoa izango duela. •



Berriro ere Nathaliek arrakasta handia izan zuen entzuleen artean.



Zero Sette Akordeoi Orkestrak Urkizuren *Dantzaldia* lehenengo aldiz jo zuen.